

www.pasaia.eus	<p>2024ko AURREKONTUAK</p> <p>ALKATETZAREN MEMORIA</p>	<p>IFK/CIF P2006900A Tel. 943 344034 Luz./Ext. 905 Donibane kalea, 19 20110 Pasaia</p> <p>ALKATETZA alkatetza@pasaia.net</p> <p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);">T010100</p>
----------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Udal gobernua 2024ko ekitaldirako aurkezturiko Aurrekontu Proiektuaren zenbatekoa **33.319.340 euro**koa da orotara. Iazko aurrekontuarekin alderatuta (25.758.190 euro), % 22,69ko gehikuntza dago, beraz. **Pasaia inoiz izan duen aurrekonturik handiena.**

Gobernu honek proposaturiko aurrekontuak alde batera utzi nahi du azken bi agintaldietan nagusitu den gastuari *eusteko* bide-orrria. Haatik, jarrera kontserbadoreak ekidin eta **anbizio ariketa** bat egin du udal gobernua, **diru-sarreraren ehuneko ehuna aurrekontuan** sartzea erabakiz.

Aipatu beharra dago **ezohiko diru-sarrera handiak** izango ditugula datorren ekitaldian. Laburbilduta, hiru iturritatik jasoko ditugu horiek: batetik, Andonaegi auzoaren berroneratzerako, Jaurilaritzatik eta Europatik 8 milioi euro jasoko ditugu; Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru-Funtsetik 13,8 milioi euro, eta Andonaegiko obrak direla eta, horiei dagozkien zergengatik 600.000 euro inguru. Gobernu honek horiek guztiak baliatuko ditu inbertsioak handitu eta herritarron bizitzak hobetzen ahalegintzeko.

Inbertsioekin lotuta, aipatu beharra dago aurtengo aurrekontuan 1.337.349,00 euro jaso ditugula helburu horrekin; **iaz baino % 27 gehiago**. Zenbateko horren baitan jasotakoan artean daude, besteak beste, honako hauek: Donibaneko saneamendurako 446.000 euro; Trintxerpeko futbol zelaiaren belarra aldatzeko 375.000 euro; udal eraikinetan eguzki plakak ezartzeko 120.000 euro; Azkuene goiako baratze parkearen lehenengo faserako 121.000 euro; Donibaneko magalak egonkortzeko 106.000 euro; herriko haur parkeak konpondu eta berritzeko 90.000 euro; San Pedroko gimnasioa egokitzeko 60.000 euro; udal ibilgailu elektrikoetarako eta kale-garbiketarako 50.000 euro; edota Larrabideko kiroldegia eraberritzeko proiektua idazteko 20.500 euro.

Gobernu hau sinetsita dago inbertsio horiek eta gehiago merezi dituztela Pasaia eta pasaitarrek. Eta horregatik hartu du erabakia diru-sarreraren zenbateko osoa aurrekontuan sartu eta baliatzeko, agintaldian zehar herria geroz eta bizigarriagoa eta lagunkoiagoa izan dadin. Aipaturiko inbertsio horiez gain, eta aurrekontuan ageri ez badira ere, ezin dira alde batera utzi administrazioen arteko elkarlanari esker datorren ekitaldian Pasaia proiektu izarrak izango direnak: **Luzuriagako kulturgunea eta Antxoko Gure Zumardiaren urbanizazioa.**

Orobat, **udal arlo guztietako partidetan izan dira igoerak**. Gizarte Ekintzara 2,9 milioi euro bideratuko dira, iaz baino % 8 gehiago. Etxez etxeko laguntza zerbitzuan lan-baldintzak duintzeko erabakia hartu da. Langileen borrokaren ondorioz lortutako eskubideak bermatuko ditu udalak.

Aipatzekoa da, beste udal aberatsago batzuetan ez bezala, euskararen kontrako oldarraldi bete-betean Pasaia Udalean apustua egin dela **euskararen arloak merezi duen aurrekontu propioa** mantendu eta hori handitzeko. Horri esker, alfabetizazioaren doakotasunean, ikastetxeetara iritsi berri diren ikasleentzako uler-saioetan, eragileekin elkarlanean osatutako mahaietan era dirulaguntza berrietan inbertitu ahalko da datorren urtean.

Kirol arloan milioi erdi inguruko inbertsioa egingo da. Horren asmoa da **herriko instalazioen hobekuntza orokorra** egitea. Izan ere, gehien-gehienetan beharrezkoak dira jarduketak, baina aurrekontu honetan egoera presazkoenei erantzuten ahaleginduko gara. Dagoeneko ari dira Kalparran beharrezko konponketak egiten, eta bide beretik jarraituko dugu agintaldian. Trintxerpeko futbol zelaiaren belarraren aldaketa, barruti horretako kiroldegia eta Larrabide kiroldegia izango ditugu ardatz.

Berdintasunari dagokionez, **% 51ko igoera** egingo da **politika feministetan aurrera egiteko**. Nabarmentzekoa da datorren urtean lehen aldiz Pasaiaiko **LGTBI+ kolektiboaren** egoera eta beharrezko buruzko azterketa bat egingo dela, 18.500 euroko aurrekontuarekin, eta horri esker lan-lerro berriak definitu ahalko dira bizitza horiek ere erdigunera eraman ahal izateko; eta hala, kolektiboko herritarren duintasunaren aldeko lehen urratsak egiteko Pasaian. Jabetze Eskolaren sustapenak ere %10 egin du gora, eta politika feministetan eta udal langileen formazioan sakontzen jarraitzeko asmoz, bigarren teknikari bat kontratatu du udalak.

Kultur programazioaren aldeko apustua ere egin du udal gobernu honek. Hasteko, Itsas Festibalaren izaera turistikoa alde batera utzi eta jarduera hori Kulturara lekualdatzea erabaki da. Horrez gain, **herrietako jai eta ospakizunetarako zenbatekoak 15.000 euro egingo du gora** datorren urtean; barruti guztietako jai-batzordeetako partidek % 10eko igoera izango dute horri esker.

Gobernu berri honen oinarrietako bat izango da herritarrekiko hartu-emana eta gardentasuna bermatzea; eta horretarako, hain zuzen, estrategikoak izango diren **Komunikazio eta Parte-hartze** teknikari bana izango ditu udal honek datorren urtetik aurrera. Gure gobernantza ereduaren isla garbia da erabaki hau.

Aurrekontu-proposamen hau Udalbatza osatzen duten gainontzeko alderdiei aurkeztu ondoren, argi utzi nahi dut udal gobernu hau prest dagoela proposamenak entzun eta, pasaitarren egunerokoa hobetzera badatoz, baita proiektu berriei leku egiteko ere.

Sinetsita gaude **33,3 milioi** hauek mugarri izango direla, merezi dugun Pasaia irudikatzeaz haratago, urte luzez atzeratu edo geldiarazi izan diren hobekuntzak **egi bihurtzen hasteko**.

Pasaian, 2023ko azaroaren 16an
Teo Alberro Bilbao
Pasaiaiko alkatea

www.pasaia.eus	<p>2024ko AURREKONTUAK</p> <p>ALKATETZAREN MEMORIA</p>	<p>IFK/CIF P2006900A Tel. 943 344034 Luz./Ext. 905 Donibane kalea, 19 20110 Pasaia</p> <p>ALKATETZA alkatetza@pasaia.net</p> <p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);">T010100</p>
----------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

El importe total del Proyecto de Presupuestos presentado por el Gobierno Municipal para el ejercicio 2024 asciende a **33.319.340 euros**. Así pues, se produce incremento del 22,69% con respecto al presupuesto del año pasado (25.758.190 euros). **El mayor presupuesto que nunca ha tenido Pasaia.**

El presupuesto propuesto por este Gobierno quiere dejar de lado la hoja de ruta basada en la contención del gasto que se ha impuesto en los dos últimos mandatos. Al contrario, el gobierno municipal ha hecho un **ejercicio de ambición**, evitando posturas conservadoras, y ha decidido presupuestar el cien por cien de los ingresos.

Cabe señalar que en el próximo ejercicio contaremos con **importantes ingresos extraordinarios**. En resumen, dichos ingresos los obtendremos de tres fuentes: por un lado, 8 millones de euros del Gobierno Vasco y de Europa, para la regeneración del barrio de Andonaegi; 13,8 millones de euros del Fondo Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa; y unos 600.000 euros en impuestos correspondientes a las obras de Andonaegi. Este gobierno utilizará todos esos ingresos para incrementar las inversiones y tratar de mejorar las vidas de los/las ciudadanos/as.

En relación con las inversiones, cabe señalar que en el presupuesto de este año se han incluido **1.337.349,00 euros con este fin, un 27% más que el año anterior**. Dentro de esta cuantía se incluyen, entre otras, las siguientes intervenciones: saneamiento de Donibane, 446.000 euros; renovación de hierba del campo de fútbol de Trintxerpe, 375.000 euros; colocación de placas solares en edificios municipales, 120.000 euros; primera fase del parque de huertas de Azkuene goia, 121.000 euros; estabilización de laderas de Donibane, 106.000 euros; reforma y renovación de parques infantiles del municipio, 90.000 euros; acondicionamiento del gimnasio de San Pedro, 60.000 euros; vehículos eléctricos municipales y limpieza viaria, 50.000 euros; o redacción del proyecto de reforma del polideportivo de Larrabide, 20.500 euros.

Este gobierno está convencido de que Pasaia y los/las pasaitarras merecen estas inversiones y más. Y es por ello que ha decidido presupuestar y disponer del importe total de los ingresos, para que a lo largo de este mandato el municipio sea cada vez más habitable y amigable. Además de las citadas inversiones, y aunque no estén presupuestados, no podemos obviar los que, durante el próximo ejercicio, y gracias a la colaboración entre administraciones, serán los proyectos estrella de Pasaia: **el centro Cultural de Luzuriaga y la urbanización de Gure Zumardia en Antxo.**

Asimismo, **se han incrementado las partidas de todas las áreas municipales**. A Acción Social se han destinado 2,9 millones de euros, un 8% más que el año pasado. Se ha tomado la decisión de dignificar las condiciones de trabajo en el servicio de ayuda domiciliaria. El Ayuntamiento garantizará los derechos logrados como consecuencia de la lucha de los/las trabajadores/as.

Cabe señalar que, a diferencia de otros ayuntamientos más ricos, en esta época de plena ofensiva contra euskera, en el Ayuntamiento de Pasaia hemos apostado por mantener e incrementar el presupuesto propio que merece el área del euskera. Esto permitirá invertir en la gratuidad de la alfabetización, en sesiones de comprensión para el alumnado recién llegado a los centros, en las mesas de colaboración con los diferentes agentes, así como en nuevas subvenciones para el próximo año.

La inversión en el área del deporte rondará el medio millón. Con ello se pretende realizar una mejora general de las instalaciones del municipio. De hecho, la mayoría de las instalaciones

requieren de intervenciones, sin embargo, en este presupuesto trataremos de dar respuesta a las situaciones más urgentes. En Kalparra ya se están realizando las reparaciones necesarias y seguiremos trabajando en ese mismo sentido durante el mandato. Nos centraremos en el cambio del césped del campo de fútbol de Trintxerpe, e intervenciones en el polideportivo de este distrito y en el polideportivo de Larrabide.

En materia de igualdad, se produce un incremento del 51% **para avanzar en políticas feministas**. Cabe destacar que el próximo año se realizará por primera vez un estudio sobre la situación y necesidades del colectivo **LGTBI+** de Pasaia, con un presupuesto de 18.500 euros, lo que permitirá definir nuevas líneas de trabajo que permitan llevar estas vidas también al centro, y así dar los primeros pasos por la dignidad de la ciudadanía de dicho colectivo en Pasaia. La promoción de la Escuela de Empoderamiento también se ha incrementado un 10%. Asimismo, con el objetivo de seguir profundizando en las políticas feministas y en la formación del personal municipal, el ayuntamiento ha contratado a una segunda técnica.

Este gobierno municipal también ha apostado por la programación cultural. Para empezar, se ha optado por dejar de lado el carácter turístico del Festival Marítimo y trasladar esta actividad a Cultura. Además, el importe destinado a fiestas y celebraciones de los distritos se incrementará en **15.000** euros el próximo año, lo que supondrá un incremento del 10% en las partidas de las comisiones de fiestas de todos los distritos.

Uno de los pilares de este nuevo Gobierno será garantizar la relación y la transparencia con la ciudadanía, para lo cual este Ayuntamiento contará a partir del próximo año con un/a técnico/a de Comunicación y otro/a de Participación, de carácter estratégico. Este acuerdo es un claro reflejo de nuestro modelo de gobernanza.

Una vez presentada esta propuesta de presupuesto al resto de los partidos que componen la Corporación, quiero dejar claro que este Gobierno Municipal está dispuesto a escuchar propuestas y a dar cabida a nuevos proyectos, siempre y cuando estén dirigidos a mejorar el día a día de los/las pasaitarras.

Estamos convencidos de que estos **33,3** millones van a ser un hito para que, más allá de empezar a imaginar el Pasaia que merecemos, se empiecen a hacer realidad mejoras que se han aplazado o paralizado durante muchos años.

En Pasaia, a 16 de noviembre de 2023

Teo Alberro Bilbao

Alcalde de Pasaia